

UDALDIA

Elorri da udea, beragaz oporrak. Ba-goaz gorputzak lasaitutera, batzuk itxas-ertzeko erriren batera joango dira, beste batzuk mendira, eta beste batzuk arazo onegaitik edo besteagaitik etxean gelditu bearko dira.

JENTE LAR

Erri orreetan lasaitasuna, aize garbia eta bakea aurkituko doguz, bertan birikiak garbitu, gorputza lasaitu eta kirioak apur batean bakean itxiko dauskuez. Baiña opor oneek be ba-dauke beste alde bat: Udalari-zagaz arazo asko agertzen dira.

Nik Bizkai'ko erri txiki baten arazoetariko batzuk azalduko dodaz, eurretan sakon-sakon sartu barik.

* * *

Erri au itxas-ertzekoa da, baiña, naiz eta itxas-ondoan egon, nekazarien erria izan da beti, gaur orrelan oso osoan izan ez arren.

Gaur egunean dagozan denda ta tabernarik geienak udari bagira dagoz ipinita.

Bai, alde onetatik datorren jendea onartua da, dirua eta bizitza barri bat dakar errira, naiz eta bizitza barri ori, urte batzuetatik, ona, oso aldatuta egon.


Oraingo udak beste era batekoak dira, orain datorren notintzagaz, erri au uri biurtzen da, ta ez daukagu ez bakerik eta ez lasaitasunik.

Jende lar, ta onetaz gaiñera batzuk ez daukie bear dan beste lotsa besteen gauzentzat.

* * *

SOLOETARA

Auxe da idazki onen oiñarria: Oporretan gure errian dabiltzazan «piratak».



Egia esan gitxi dira, baiña egiten dabekaltea aundia da, bai baserritarrentzat eta bai beste udalariarentzat.

Erri onetara «al asalto» sartzen dira; ona eltzen diranean, mantsotu egin bearrean pizti edo, biurtzen dira.

Beiak be, denboraldi bat ba-daukaguz kortatik atara barik, kalera urteten dabenean mantsoagoak izaten dira.

Beintzat ez dira joaten iñori lapurretan egitera, ez eta kalterik egitera.

NEKAZARIEN IZERDIA

Zenbat piper eta beste barazki batu ete da gure erriko soloetan marraskilloak batuten dagozala esanaz!

Ez dira konturatutzen jende orreik «marraskillo» oneek gure nekazarien izerdiagaz lortutakoak dirala?

Txinbereagaz edo eskopeteagaz egon bearko dogu lapurrei begira?

Egia esan txarto ez litzako etorriko lan-tzean bateri gatz apur bat lepoaren azpian !!!

* * *

GUZTIOK ERRITAR

Baiña len esan dodan lez, geienak ez dira orrelakoak, geienak ba-dakie zer dan «sentido de la civilizacion», noiz ikasiko ete dabe besteak?

Orregaitik idazki *au*, zuentzat da, oporrak igarotzen uda-erriren batera zoazeneentzat: Zaindu egizuz besteen gauzak, zeureak zaintzen dozuzen lez, estutu dagiguzan gure arteko artuemonak; ez daitela izan ezberdintasunik erritar eta udalarien artean, danok erritarrak izan gaitezkan gure erria bizkorturik.

* * *

GOGO ONEZ

Oraintxe diñotzut: Gogo onegaz ba'zatoz, onartua izango zara; baña zure gogoak beste batzuk ba'dira, ez zara sekula onartua izango emen bere ez, an bere ez eta iñon bere ez.

Zuri, udalari zintzo orreri, biotz-biotzez eta erritar guztien izenean **ESKERRIK ASKO !**